

SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2020KO MAIATZAREN 22KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, 2020KO MAIATZAREN 25ETIK AURRERA EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN ZENBAIT HEZKUNTZA-ETAPATAN DEITUTAKO GREBA MUGAGABEAN ZEHAR KOMUNITATEARI EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUSTEA BERMATZEN DUENA.

ELA sindikatuak grebarako deialdia egin du Euskal Hezkuntza Sistemaren esparruan, eta grebak honako hauei eragingo die: Batxilergoko 1. eta 2. mailak, goi-mailako LHko 1. eta 2. mailak, erdi-mailako LHko 1. eta 2. mailak eta DBHko 4. maila, eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak (2020ko maiatzaren 25ean hasiko da, lanaldi osoan eta mugagabean).

Deialdia egin dutenen arabera, helburua da "*lehen aipatutako hezkuntza-etapetako langileen osasuna babestea, laster euren lanpostuetara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak iragarri duenez, itzultzen direnean*". Izan ere, haien ustez, "*ez dira beharrezko neurriak hartu kolektibo horiei bermatzeko lanera itzul daitezkeela osasuna arriskuan jarri gabe, ez langileen osasuna, ez ikasleena*". Grebaren deialdiaren bidez, "*Hezkuntza Saila behartu nahi dute hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragileekin benetako negoziazio-prozesu bat abiaraztera, negoziatzeko eta adosteko zer baldintzatan itzuli ahal izango diren irakasleak beren lanpostuetara osasuna arriskuan jarri gabe*". Ildo horretan, deialdia egin duen alderdiak adierazi duenez, "*Eurek dakitela, ez da egin lan-arriskuei buruz behar den ebaluaziorik, lanera itzultzeak eskatuko lukeen bezala, eta, beraz, ez da betetzen lan-osasunaren arloko araudia, ezinezkoa baita babestea behar bezala ebaluatu ez dena*".

Halaber, honako hau gaineratu dute: "*Hezkuntza Sailak alde bakarrez hartu du aipatutako hezkuntza-etapetan jarduerara itzultzeko erabakia, erakunde sindikalekin kontrasterik eta negoziatorik egin gabe, eta, horrenbestez, ezinezkoa izan da alderdi honek kudeaketarik egitea dauden desadostasunak konpondu ahal izateko*".

Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba-eskubidea aitortzen du, beren interesak defendatzeko, egungo zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoak dituen oinarritzko eskubideetako bat den aldetik. Konstituzioak, beraz, aipatzen eta babesten dituen eskubide garrantzitsuenei (besteak beste, bizitza, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, zirkulazio askea eta informazio-askatasuna) ematen dien babes bera ematen dio grebarako eskubideari. Eskubide horiek guztiek dute, grebarako eskubidearekin batera, babes konstituzional gorena.

Beraz, grebarako eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako funtsezko eskubideekin, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, gatazkan dauden oinarritzko eskubide





guztiak edukirik gabe gera ez daitezen.

Hala ere, aurreko premisa ondorioztatuta, argi dago oinarrizko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasunak proportzionaltasun-printzipioa zorrotz betetzearen baitan egon behar duela, eta hori gainditu egingo da neurriak hiru betekizun edo baldintza betetzen edo gainditzen baditu: haren aplikazioa proposatutako helburua lortzeko gai bada, edo "egokitasun-irizpidea"; kasua aztertuta, ondorioztatzen bada ez dagoela beste neurri moderatuagorik helburu hori antzeko efikaziarekin lortzeko, edo "beharrezkotasun-irizpidea"; eta, azkenik, emandako neurria edo soluzioa orekatua ote den, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago etortzen direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balio batzuen gaineko kalteak baino, eta, orduan, "zentzu hertsiko proportzionaltasunaren irizpidearen" aurrean egongo ginateke. Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan eman du gai horren gaineko erabakia, guztietarako: 122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003.

Adierazpen horietatik ondorioztatu behar dugu ezen, erkidegoan funtsezko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak greba-eskubidea gauzatzeari dakarkion muga gogoan, beharrezkoa eta ezinbestekoa dela jokoan dauden interesen arteko oreka ebaluatzea. Hori dela eta, ziurtatze horrek berme bat izan behar du, eskubide kontrajarrien beharrezko koordinaziotik eratortzen dena, ulerturik grebalarien eskubidea mugatu egin beharko dela — laga, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan — grebaren bidez beren interesak defendatzeak funtsezko zerbitzua emateko eskubidearen hartzaileari edo titularrari kalte larriagoa eragiten dionean edo eragin diezaiokeenean, ezen ez beren aldarrikapenen edo uzien arrakastaren falta hipotetikoak. Horregatik, aurrekoa oinarri, eta greba-deialdi honen aurrean, kontuan hartu beharko dira grebaren garapenaren ezaugarriak.

Denborari dagokionez, lanaldi osokoa eta mugagabea da egin den deialdia, eta 2020ko maiatzaren 25ean hasiko da. Jarduera-eremuari dagokionez, hezkuntza-eremuari eragiten dio lehen adierazitako prestakuntza-etapetan, bai eta Euskal Hezkuntza Sistemako Hezkuntza Bereziko ikastetxeei ere.

Gainera, ezin da ahaztu utzi deitutako greba COVID-19k eragindako osasun-krisiaren eta osasun-, gobernu- eta hezkuntza-agintariek hartu dituzten neurrien barruan dagoela, bai eta ziklo eta hezkuntza-maila jakin batzuetako ikasleak ikasgeletara pixkanaka itzultzearen barruan ere.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren jarraibideei men eginez, Hezkuntza Sailak erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietako jarduera presentziala aldi baterako etetea, oro har, 2020ko martxoaren 13tik aurrera.

Pandemiaren bilakaera ikusita, une honetan, pixkanaka normaitasunera itzultzen ari den agertoki berri batean gaude, gizarte- eta lan-jardueraren hainbat arlotan. Horregatik, ziklo eta hezkuntza-maila jakin batzuetan, ikasleak aurrez aurreko hezkuntza-jarduerara itzultzea erabaki du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, 2020ko maiatzaren 25ean, astelehena, DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. eta 2. mailako eta Lanbide Heziketako 1. eta 2. mailako ikasleak sar daitezke aurrez aurreko eskoletan,



eta ikastetxe bakoitzak erabakiko du zein ikasle sartuko diren.

Hain zuzen ere, hezkuntza-etapa horiei eragiten die grebarako deliak.

Hezkuntza-eremu horretan, abiapuntutzat hartu behar da hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan aitortutako oinarrizko eskubidea dela, zentzu zabalean ulertuta, alegia, eskubide hori pertsonen bizitzan luzatzen da, eta, beraz, hartzen ditu bai existentziaren lehen urteak, zeinetan beharrezkoa baita hezkuntza-zerbitzua ematea haurraren garapen integrala lortzeko, eta bai unibertsitate-hezkuntza. Horrela adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak bere 26/1987 epaian, 4. OJ a), honako hau adierazi zuenean: "*Irakaskuntzako oinarrizko eskubide baten tratamendua ere (unibertsitateko bertsioarena) funtsezko zerbitzuak ezartzeko sistemaren menpe dago, hezkuntza-zentro horietan zerbitzuak ematen dituzten langileen greba-eskubidea gauzatzeari dagokionez. Ondorioz, ezin da esan funtsezko zerbitzu horiek ezartzeak Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua, greba-eskubidea, urratzen duenik*".

Jokoan dauden eskubideen esentzialtasuna bermatuko duten gutxieneko zerbitzuak finkatzeari dagokionez, ikastetxeak irekitzea nahitaezkoa da ikasleak sartzeko, eta beharrezkoa da greba egiten ez duten langileak Konstituzioaren 35. artikuluan aitortzen den lanerako eskubidea gauzatzeko. Hori dela eta, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzu gisa ulertzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, grebarako eskubidea ez erabiltzea erabakitzen duten langileen eta ikasleen sarbidea babesteko, izan ere, zentroak ireki gabe erabat eta justifikaziorik gabe eragotziko litzateke lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa.

Baina unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak irekitzeko, "Ikastetxea irekitzeko" jarduketara materialez gain, irakaskuntzaren eginkizun edo jardueraren, instalazio edo elementu materialen eta zaintza- eta jagoletza-elementuen "funtzionamendu-errutinak" egitea eskatzen da (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileagatik eskatzen direnak); izan ere, ikasle adingabeak joaten diren ikastetxeak direnez, —ezin zaie adingabeei beren jardunean eskatu helduek duten heldutasun-maila bera, eta, hortaz, ez da erabat baztertzen ikastetxearen erantzukizuna (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko epaia)—. Arreta berezia eskatzen da saihestu litezkeen arriskuak ezabatu edo murrizteko, instalazioak behar bezala antolatuz eta mantenduz, bai eta zaintza- eta kontrol-lanak garatuz ere. Adingabeak edo ezgaituak zaintzeak, normalean irakaskuntza- edo prestakuntza-jardueren egoitzetan, eskatzen du arreta berezia jarri behar dela lesio edo kalteak saihesteko. (Valentziako Auzitegi Nagusiaren 1526/2009 Epaia, urriaren 23koa (Administrazioarekiko Auziak, 1.)). Hori dela eta, zentro horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, agindurako eta/edo zuzendaritzarako ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, eskatzeko prebentzio- eta segurtasun-ardura kontzentratu daitezela objektiboki adingabeentzat arrisku-foku potentziala duten puntuetan.

Inguruabar horiek direla-eta, lan-agintaritzak honek, 2019ko urtarrilean, martxoan, apirilean, maiatzean, azaroan eta abenduan Gizarte Ekimeneko Irakaskuntzaren sektorean deitutako greben aurrean, birplanteatu egin zituen ezartzen ari ziren gutxieneko zerbitzuak, ikasleen segurtasuna bermatzeko, batez ere haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeentzat eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak



dituztenentzat. Hori guztia 2019ko urtarrilaren 15eko Aginduan islatu zen, eta hurrengo deialdietan emandako aginduetan mantendu zen. Agindu horietako bi, zehazki, 2019ko urtarrilaren 15eko Agindua eta 2019ko martxoaren 7ko Agindua, errekurritu egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, zeinek ekainaren 26ko 327/2019 Epaian (59/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa eta haren 62/2019 metatua) eta irailaren 10eko 361/2019 Epaian (177/2019 jurisdikzio-babeserako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa), errekurtsioak ezetsi eta aipatu ditugun aginduak berretsi egin zituen.

Horrela, beharrezkotzat jo zen ikastetxea irekitzeko izendatzen ziren pertsonen gain, gutxieneko eta funtsezko hezkuntza-jarduerekin jarraitu ahal izateko behar adina irakasle izendatzea, bai 35. artikuluan Konstituzioaren arabera ezarritako lanerako eskubidea bermatzeko, bai adingabearen interes gorenean oinarrituta ikasleen zaintza eta segurtasuna bermatzeko, adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren bidez araututakoaren arabera. Jarduera horiek eta haien edukiak ikastetxe bakoitzaren esku utzi ziren, bakoitzak bere autonomia pedagogikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan jasotakoa oinarri hartuta ezarritako hezkuntza-proiektuan oinarrituta.

Greba hau mugagabea da, eta DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako hainbat ziklo eta hezkuntza-mailatan du eragina. Ikasturtea amaieran dator. Beraz, hainbeste eskola-egun jarraian gaitzeak eragin handia izan dezake ikasleen hezkuntza-etorkizunean, eta, bereziki, Batxilergoko 2. urteko ikasleen etorkizunean, unibertsitatera sartzeko azterketa aurretik baitute.

Hala ere, lehen adierazi bezala, 2020ko maiatzaren 25ean (astelehena), greba hasteko egunean, Hezkuntza Sailak adierazi du DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. eta 2. mailako eta Lanbide Heziketako 1. eta 2. mailako ikasleak bakarrik sar daitezkeela aurrez aurreko eskoletan, eta ikastetxe bakoitzak erabakiko duela zein ikasle hasiko diren. Gainera, adin puska bateko ikasleak dira.

Horregatik guztiagatik, deitutako grebaren kasuan, lan-agintaritzak honek egokitzen du zuzendaritza-taldeko pertsona bat eta mendekoen plantillako pertsona bat goizeko txandarako eta beste bat arratsaldeko txandarako ezartzea grebaren eraginpeko zentro guztietan, zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, ikastetxe bakoitzean eta lotutako eraikin bakoitzean.

Aipamen berezia merezi dute hezkuntza bereziko ikastetxeek. Horra joaten diren ikasleek laguntza orokorra behar dute euren egoera bereziangatik edo duten desgaitasun eta mendekotasun-maila handiagatik, eta laguntza oso indibidualizatua eta baliabide intentsibo eta jarraituak behar dituzte. Horregatik, zentro horien berezko babes-funtzioa babesteko beharrezkotzat jotzen da gela horietan egon ohi diren langileen% 75 egotea.

Inguruabar horiek guztiak direla-eta, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar dira, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.



Gai honetan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzari esleitzeak bermatu nahi du ezen gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak eta zuzenbidearen arabera baino ezin dituela ezarri greba-eskubidea gauzatzeak izan behar dituen mugak, oinarrizko zerbitzu jakin batzuk mantentze aldera, zerbitzu horiek oinarrizko beste eskubide batzuk betetzera bideratuta baitaude.

Izan ere, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrezko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».

Arau horretan —zeina konstituzionala baita (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])—, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorritik, bertan honako hau ezartzen da: «Eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako funtsezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko». Azken batean, gobernu-agintaritzari ahalmena ematen zaio edozein motatako berme-neurriak hartzeko, betiere greba denean ezinbesteko zerbitzuei eusteko, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei zerbitzuok bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta entzunaldia eskaini zaie eragindako alderdiei —grebarako dela egin duten sindikatuak, eragindako enpresa-elkarteei eta Hezkuntza Sailari—, Jaurlaritzaren erabakiak eragingo dien zerbitzu eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremani buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio behar diren neurriak ezartzeko eskumena, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko.



Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak jasota, honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Euskal Hezkuntza Sistemaren eremuan, Batxilergoko 1. eta 2. mailatan, Goi-mailako LHko 1. eta 2. mailatan, Erdi Mailako eta Oinarrizko LHko 1. eta 2. mailatan, DBHko 4. mailan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan 2020ko maiatzaren 25ean lanaldi osoan eta mugagabeen hasiko den grebarako eskubidea gauzatzeko, ondoren adierazten diren funtsezko prestazioak eta haien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak bete beharko dira:

1.- Grebak eragindako zentro guztietan zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, ikastetxe eta horiei lotutako zentro publiko bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona 1 eta mendekoen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.

2.- Honako hauek gehituko zaizkie aurreko paragrafoan finkatutako zerbitzuei, babes-funtzioa babestu dadin:

- Hezkuntza Bereziko Zentroetan ikasgeletako ohiko langileen %75

3.- Azken ebaluazioaren maila duten azterketak egiteko, 1. paragrafoan finkatutako zerbitzuei honako hauek gehituko zaizkie: irakasle bat, azterketa egiteaz arduratuko dena.

Bigarrena.-

1. Zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariak entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak, eta langile horiek txandaka bete behar dituzten gutxieneko eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako **mugak errespetatu beharko dira**

Honako hurrenkeran izendatuko dira gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten pertsonak: lehenengo zerbitzu hau eman ohi duten eta grebarekin bat egingo ez duten langileei deituko zaie; modu horretan gutxieneko zerbitzuak betetzeko adina langile ez balego, greba egiteko asmoa duten langileen artean izendatuko dira gutxieneko zerbitzua eman beharrekoak.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu haiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



Laugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Bosgarrena.- Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

Seigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, Ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertzeke errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 22an



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA JUSTIZIA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA
María Jesús Carmen San José López
LAN ETA JUSTIZIA SAILBURUA